

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 3996

*AGINDUA, 2023ko uztailaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez itunpeko ikastetxe pribatuetarako dirulaguntzak iragartzen baitira, enplegua mantentzeko eta irakasleen plantillak gaztetzeko, kontuan izanik datozen urteetan beherakada demografikoa gertatzea aurreikusten dela.*

2030 hezkuntzaren esparruak hezkuntzak Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko eragile nagusi gisa duen rola aitortzen du, eta hezkuntza-eraldaketaren testuinguruan funtsezkoa da irakasleen rola eta protagonismoa indartzea, hezkuntza-sistema osoaren eraldaketa-eragile nagusi gisa. Hala ere, irakasleen ahaleginetik harago, lan-egonkortasunak ere eragin zuzena du ikastetxe baten funtzionamendu onean, eta, zalantzarik gabe, haren esperientziak sistema hobetzen laguntzen du.

2022-2023 ikastaroko matrikulazioetan baieztatu egin dira garai batean aurreikusi ziren jaiotza-tasa txikiak, ikasturte horretarako ikasleen kopuruak nabarmen egin baitu behera. Hezkuntza-sistemaren aukera bakarra da egoera horri aurre egitea, eta hori erronka bat da gaur egungo beharrezko hezkuntza-eraldaketaren testuinguruan.

Ondorioz, Sailak irakasleak indartzeko hartu duen konpromisoaren esparruan, hezkuntza-aldaketa eta -hobekuntzarako eragile nagusi gisa, egonkortasuna funtsezko elementua da helburu horiek lortzeko. Beraz, beharrezkotzat jotzen da itunpeko ikastetxeei zuzendutako dirulaguntza-ildo bat artikulatzea, alde batetik ikasgelen kopuruaren murrizketaren ondorioz lanpostua galtzen duten irakasleei laguntzeko eta haien enplegua mantentzeko, eta, bestetik, belaunaldi-erreleboa ahalbidetzeko, adin nagusiko irakasleei erretiratzen laguntzeko eta gazteagoak sartzeko: erretiro partziala eta errelebo-kontratua Administrazioaren laguntzarekin.

Deialdi hau Hezkuntza Hezkuntza Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago, zeina Hezkuntzako sailburuaren aginduz onartu baitzen 2023ko urtarrilaren 23an. Plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dago argitaratuta (<https://www.euskad.eus/plan-estrategico-de-subvenciones/web01s2hhome/>), Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikuluan xedatua betez.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren Erregelamendua –uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsitakoa–, oinarritzko aginduak aplikatzeari dagokionez; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua eta gainerako arau aplikagarriak, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta zertarakoa.

1.–Agindu honen xedea da hezkuntza-ituna duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako dirulaguntzak iragartzea 2022-2023 ikasturterako. Dirulaguntzak jasotzeko, ikastetxeek 4. artikuluan

aurreikusitako jarduera diruz lagungarriak egin beharko dituzte, 5. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

2.– Dirulaguntzen helburua da itunpeko ikasgeletako irakasleen enplegua mantentzea eta hezkuntza-itunera atxikitako plantillaren gaztetzea sustatzea.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetan diruz lagun daitekeen gehieneko zenbateko osoa 13.826.073 eurokoa da.

2.– Zenbateko hori igo ahal izango da eskatutako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa kontuan hartuta, aurrekontu-baliabideen arabera, horiek ebatzi aurretik, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikuluekin bat. Inguruabar hori Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da.

3. artikulua.– Erakunde onuradunen betekizunak.

Dirulaguntza hauen erakunde onuradun izan daitezke 2022-2023 ikasturtean hezkuntza-ituna duten unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako titularrak, baldin eta baldintza hauek betetzen badiuzte:

a) Hezkuntza-itunei buruzko araudia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuan ezarritako hezkuntza-itunen araubide juridikoaren berezko baldintzak eta horri aplikatu ahal zaion gainerako araudia.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Baldintza hori betetzen dela automatikoki egiaztatuko du deialdiaren organo kudeatzaileak, behar adina aldiz, eta ez da beharko haien baimena, kontrakoa berariaz adierazi ezean.

Hala ere, zentroko titularrak baimena espresuki ukatzen ahalko du, eta betebeharrak horiek betezen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

c) Ez egotea zigortuta zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, eta ez egotea hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoarekin eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Legea bigarren aldiz aldatzeko martxoaren 3ko 1/2022 Legearekin bat.

d) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta jarduketak.

Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen gastuak eta jarduketak:

1.– Enpleguari eustea, curriculum-irakaskuntza itunpeko ikasgela batean ematen duten kontratu mugagabedun irakasleak birkokatuz, baldin eta itunpeko ikasgelak gutxitzeagatik 2022-2023 ikasturtean lana galdu badute; edo kalte-ordaina, birkokatzea ezinezkoa denean.

Lana galdu duen irakaslea aukeratzeko eta birkokatzeke, 5. artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dira.

Diruz lagunduko den gastua, kontzeptu horregatik, itundutako ikasgela murriztu den ikastetxean birkokatutako pertsonak aitortuta zuen antzintasuna izango da, birkokatzearen datatik 2023ko abuztuaren 31ra arte, edo ordaindutako kaleratzeagatik legezko kalte-ordaina.

Ikastetxeen itxierak ez dira joko dirulaguntzaren xedetzat, ezta irakasleak borondatez birkokatzeari uko egitearekin lotutako kalte-ordainak ere.

Deialdi honen esparruan, antzinasun- eta kaleratze-gastuak bateraezinak dira subjektu berean.

2.– Plantilla gaztetzea itunpeko ikasgela batean ikasleei curriculum-irakaskuntza ematen dieten eta kontratu mugagabea duten irakasleen errelebo-kontratuarekin lotutako erretiro partzialaren bidez.

Kontzeptu horregatik diruz lagunduko den gastua Gizarte Segurantzari kuota patronalaren kotizazioen gainkostua da, eta kotizazio horiek dira 2022-2023 ikasturteko errelebo-kontratuengatik eta lanaldi partzialeko kontratuengatik egin behar direnak, erretiro partzialean dagoen pertsonak erretiro osoa hartu artekoak, betiere EAEko Administrazioari langile lan-kontratudunentzat araututako erretiroen gainkostua gainditu gabe. Horiek Funtzio Publikoko sailburuordearen 1/2021 eta 2/2023 Instrukzioen bidez arautzen dira, errelebo-kontratuekin lotutako erretiro partzialari dagokionez.

5. artikulua.– Diruz lagundutako jarduketak egiteko baldintzak.

Dirulaguntzak lortzeko, diruz lagundutako jarduketekin lotutako baldintza hauek bete behar dira:

1.– Honako arau hauek aplikatzea itunpeko unitateen murrizketak eragindako birkokatze eta kaleratzei:

a) Itunpeko unitateen murrizketagatik lanpostua galdu duen irakaslea aukeratzeko, irizpide hauek aplikatu behar dira:

– Lehenik eta behin, balizko kaltetuen borondatea.

– Bigarrenik, itunpeko ikasgela murriztu duen ikastetxeko antzinasun txikiena.

b) Ikastetxearen titularrak ikastetxeko batzordeari jakinarazi behar dio lanpostua galdu duen irakaslearen nortasuna, adierazitako irizpideak zuzen aplikatu izanaren egiaztagiriarekin batera.

c) Ikastetxeetako titularrek baldintza hauek bete behar dituzte birkokatzean:

– Plaza hutsak ikastetxeko batzordeari jakinaraztea berehala, ikastetxeak plaza hutsik geldituko den eguna jakitean, edo, aurreikusi ezin bada, gertatzen denean.

Xede horietarako, plaza huts gisa jotzen da irakasle-premia oro, gutxienez ikasturte baterako aurreikusten dena, arrazoi hauengatik sortua:

- Itunpeko ikasgelak areagotzea.
- Erretiroak.
- Borondatezko bajak.
- Ezintasunak eta heriotzak.
- Plazaren erreserba galdu ondorengo eszedentziak.

– Edonola ere, titulazio-, profil- eta espezialitate-baldintzak bete behar dira birkokatzei.

2.– Ikastetxearen batzordea osatzea, osaera honekin eta funtzio hauekin:

a) Batzordea hauek osatuko dute: ikastetxeko titularraren ordezkari batek, ikastetxeko zuzendaria eta langileen ordezkariak.

b) Batzordeak funtzio hauek dauzka:

– Kontratazio-premien, birkokatzeke langileen eta aurreikusitako erretiro partzialen zerrendak egitea.

6. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Birkokatzearen bidez enplegua mantentzeko dirulaguntzaren zenbatekoa izango da itunpeko ikasgela murriztu duen ikastetxean birkokatutako pertsonak aitortuta duen antzinasunaren zenbatekoa. Honela kalkulatu da:

	2022ko Iraila-Abendua			2023ko Urtarrila-Abuztua		
	Hirurtekoa/hilabetea	Gizarte Segurantzza	Guztira	Hirurtekoa/hilabetea	Gizarte Segurantzza	Guztira
HH-LH	45,06	14,15	59,21	46,19	14,73	60,92
DBH 1eko maisu-maistrak	45,06	14,15	59,21	46,19	14,73	60,92
DBH 1 - Liz. + DBH 2 + Batx. + LH	53,87	16,92	70,79	55,22	17,62	72,84

Ezin bada birkokatu, eta egiaztatzen bada, eteteagatiko legezko kalte-ordainaren zenbatekoa ordainduko da, hala eskatzen bada.

2.– Errelebo-kontratuarekin lotutako erretiro partzialaren bidez plantilla gaztetzeko dirulaguntzaren zenbatekoa Gizarte Segurantzarekiko kuota patronalaren gailuzkoaren zenbatekoa izango da, eta gailuzko horrek ezingo du gailuzko EAEko Administrazioari langile lan-kontratudunentzat araututako erretiroei dagokiena.

7. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde eskatzaileek telematikoki egin beharko dute dirulaguntza-deialdi honek eskatzen duen izapidetze osoa, eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, horretarako eskuragarri dauden txantiloak erabiliz.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxan, eskaera izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak, eta ereduak daude, eta fitxa hori erabiltzen da eskaeraren formulariora sartzeko. Fitxa hori helbide honetan eskura daiteke:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/2023/11017/web01-tramite/eu>

2.– Eskaeraren osteko izapideak –zuzenketak eta justifikazioak barne direla– bide elektronikoz egingo dira, «Nire karpeta» atalaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoren helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaria Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskriba daiteke, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

4.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta gainerako dokumentuak. Halaber, prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatzen den moduan.

Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Hilabeteko epean, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, ikastetxeek birkokatutako langileak aitortuta duen antzinasunaren kostua finantzatzeko dirulaguntzak eskatuko dituzte, I. eranskineko eskaera-ereduaren bidez.

Kaleratzeagatiko kalte-ordainen kasuan, dirulaguntzak hilabeteko epean eskatuko dira, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, betiere ikastetxeak lanpostua galdu duen langileari kalte-ordaina ordaindu badio, I. eranskineko eskaera-ereduaren bidez.

2.– Errelebo-kontratuen eta partzialen Gizarte Segurantzaren gainkostua ordaintzeko kasuetan, ikastetxeek Agindu honen II. eranskineko ereduaren bidez eskatuko dituzte dirulaguntzak, Agindua argitaratzen denetik hilabeteko epean, 2022-2023 ikasturtean egiten diren erretiro partzialetarako, hau da, 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitarteko kontratu mugagabea bukatzen duten pertsonen dagokienez.

9. artikulua.– Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabidearekin batera artikulua honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

2.– Kasu guztietan, erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena atxikiko da, eskabidean jasotako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko, Aginduaren 3. artikuluan jasotako baldintzei dagokienez. Adierazpen hori IV. eranskineko ereduaren arabera egingo da.

3.– Eskatzen dena birkokatutako pertsonaren antzinasunaren kostu erlatiboa bada, hau atxikiko da:

a) Itunpeko ikasgelaren murrizketaren ondorioz lanpostua galdu duen irakaslearen NANaren kopia.

b) Birkokatutako pertsonaren lan-kontratu mugagabe berriaren kopia.

c) Lanpostua galdu duen ikastetxean a) letran aipatutako pertsonari aitortutako antzinasunaren egiaztagiria.

d) Lana galdu aurreko azken hiru nominak.

e) Ikasgelak murriztu dituen ikastetxeko batzordearen ziurtagiria, kide guztiek sinatuta. Ziurtagiri horretan, egiaztatu beharko da egiaztatzeko birkokatu behar den irakasleak lana galdu duela eta hori 5.1.a artikuluan ezarritako irizpideen arabera ebatzi dela.

f) Irakaslearen birkokatzea ikastetxearen titularraren ordezkariaren eta langileen ordezkarien arteko adostasunarekin egin dela egiaztatzeko ziurtagiria, bi aldeek sinatuta.

4.– Eskatu dena kaleratzeagatiko kalte-ordainak ordaintzea bada, honako hau atxikiko da:

a) Langilearen eskaeraren kopia, kaleratzeagatiko legezko kalte-ordaina ordaintzeko eskatuz.

b) Enplegatzailleak ordaindutako kalte-ordainaren ordainagiria.

c) Ikastetxearen titularraren ordezkariak eta langileen ordezkariak sinatutako ziurtagiria, non ziurtatzen den ezin izan dela birkokatzea egin.

5.– Eskatu dena Gizarte Segurantzarekiko kotizazioen gainkostua bada, honako hau atxikiko da:

a) Ikastetxeko batzordearen ziurtagiria, kide guztiek sinatuta, egiaztatzeko jakinarazi zaiela erretiro partzialak eragindako plaza hutsa, diruz lagunduko dena.

b) Erretiro partziala dagoeneko gertatu bada.

– Erretiro partziala hartu duen pertsonaren errelebo-kontratuaren eta lanaldi partzialeko kontratuaren kopia, baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egindako jakinarazpenak ere. Kontratu horiek, horien aldaketak eta kontratu berriak «ikastetxean alta eman» edo «ikastetxea/lanaldia aldatu» eskaeren bidez bidali behar dira, «Ikastetxe Pribatuen Kudeaketa» aplikazioan.

– Errelebo-hartzailearen eta errelebatutako langilearen NANaren kopia.

6.– Ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, Administrazioak informazio gehigarria eska dezake, aurreko paragrafoetan adierazitakoaz gainera.

10. artikulua.– Prozeduraren izapideak eta dokumentazioa zuzentzea.

1.– Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendaria izango da dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzio-organoa, eta prozedura ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahalko du.

2.– Eskaera epez kanpo aurkezten bada, baztertu egingo da, epez kanpo aurkeztegatik. Epe barruan aurkeztuta ere akatsen bat badu edo dokumenturen bat aurkeztu ez bada eta hori beranduago aurkez badaiteke, zuzentzeko eskatuko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 68. artikuluan adierazitakoarekin bat.

11. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, ebazteko epea eta errekurtsioak.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzen eskaerak kudeatu eta izapidetzeko organo eskuduna Hezkuntza Sailaren Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza izango da.

2.– Dirulaguntzak publizitatearen, norgehiagoka ezaren eta objektibotasunaren printzipioen arabera emango dira, eta epe barruan eta modu egokian aurkeztutako eskaera guztiei emango zaizkie, betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak eman edo ukatzeko, Hezkuntza Sailaren Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak Ebazpena emango du.

4.– Ebazpenak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaera bide-ratzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabide hori sartzen denetik zenbatzen hasita; epea igarota interesdunari ez bazaio Ebazpenik jakinarazi, eskaera ukatutzat joko da.

5.– Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariaren Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko da Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean, hilabete bateko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

6.– Publizitate-printzipioa betetzeko, eta emakida-ebazpenak berariaz eta banaka jakinarazteari kalterik egin gabe, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen Ebazpenaren bidez EHAA argitaratuko da deialdi honen babespean emandako dirulaguntzen onuradunak izan diren ikasteen zerrenda, jasotako zenbatekoak eta kontzeptuak adierazita.

12. artikulua.– Bateriaezintasunen araubidea.

Deialdi honen bidez jasotako zenbatekoa bateragarria izango da administrazio publikoen mendeko organoen edo hezkuntzan eskumenik ez duten erakunde pribatuen eskutik lortutako beste edozeinekin, betiere guztien baturak ez badu gainditzen ekarpen honen xede-gastuaren % 100. Gainditzen badu, egindako gastutik gora jasotzen den kopurua kenduko zaio deialdi honen araberako legokiokeen dirulaguntzari.

13. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea.

1.– 6.1) artikuluan aurreikusitako enplegua mantentzeko antzintasuna ordainduko da birko-katutako langileei ordaindutako nominak aztertu ondoren eta, hala badagokio, onartu ondoren. Nominak hilabeteko epean aurkeztu behar dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Birkokatu ondoren ordainketa delegatuan alta ematen zaien pertsonen antzintasuna hilero ordainduko da, ordainketa-sistema horren bidez.

Kaleratzeagatiko legezko kalte-ordaina emakida ebatzi ondoren ordainduko da.

2.– Gizarte Segurantzaren gainkostuen ordainketa bi sei hilekoko ordainketetan egingo da, ekainean eta abenduan, emakida-ebazpenaren ondoren, III. eranskina aurkeztu ondoren eta justifikazio-dokumentazioa egiaztatu ondoren.

a) Erretiro partziala hartu duen pertsonaren errelebo-kontratuaren eta lanaldi partzialeko kontratuaren kopia, baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egindako jakinarazpenak ere. Kontratu horiek, horien aldaketak eta kontratu berriak «ikastetxean alta eman» edo «ikastetxea/lanaldia aldatu» eskaeren bidez bidali behar dira, «Ikastetxe Pribatuen Kudeaketa» aplikazioan.

b) Errelebo-hartzailearen eta errelebatutako langilearen NANaren kopia.

c) Errelebo-hartzaileari eta errelebatutako langileari ordaindutako nominen kopiak.

d) Gizarte Segurantzaren kotizazio-dokumentu indibidualizatuen kopiak, atzerapen eta kotizazio osagarriei dagozkienak barne, baita langilearen kotizazio-kontu guztienak ere.

Nominak eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-dokumentu indibidualizatuak elkarrekin bidali behar dira epe berean, hilero, dokumentu mota adierazita, langile bakoitzeko fitxategi indibidualizatuetan, egitura honekin:

abizena1\_izena\_nom\_hilabetea\_urtea.pdf

abizena1\_izena\_rnt\_hilabetea\_urtea.pdf

14. artikulua.– Ikastetxe onuradunen betebeharrak

Agindu honetako dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek honako betebeharrak hauek dituzte, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharez gain (finantzaketa publikoa dela jakinarazteko hedapen egokia emateko neurriak

ere hartu beharko dituzte, dirulaguntzei buruzko lege horren 18. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan jasotakoarekin bat etorritik):

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Hortaz, hamabost eguneko epean –ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita– ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko dira.

2.– Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko da, ez beste ezertarako.

3.– Era berean, dirulaguntza ematen duen administrazioak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Administrazioaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako egiaztatze-jarduerak onartu beharko ditu ikastetxe onuradunak, EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, sail eskudunaren bitartez, audiotoretzak egin ahal izango ditu ikastetxeetan, emandako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko.

4.– Ikastetxeek birkokatutako langileen kontratu mugagabeak mantentzeko betebeharra dute, eta 12 hilabeteko proba-epea finkatzen da; epe horretan zehar, kontratua deuseztatu ahalko da soilik ikastetxe edo ikastolako batzordeak balioztatzen badu. Kasu horretan, langilea berriro birkokatu beharko da.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan ezarritakoak dira ustezko ez-betetzeak; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluen bidez onartu zen testu bategin hori.

2.– Horrelako ez-betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, osorik edo zati batean, betiere xedapen hauen arabera: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37.1 eta 37.2 artikulua; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak; eta 698/1991 Dekretuaren 4. artikulua (698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena), eta bereziki kasu hauetan:

a) Langilea kaleratzea probako 12 hilabeteak igaro ondoren, betiere kaleratzea ez badu balioztatatu ikastetxe edo ikastolako batzordeak, eta langilea ez bada birkokatzen, bi aldeek (patronala eta ordezkaria sindikala) egiaztatutako ezintasuna egiaztatzen den kasuetan izan ezik.

b) Jasotako dirulaguntzak justifikatzeko betebeharra urratzea.

c) Dirulaguntzen xedea ez betetzea.

d) Baldintzak bete gabe jaso izana dirulaguntzak.

e) Agindu honen 12. artikuluan ezarritako betebeharrak bat edo batzuk ez betetzea.

16. artikulua.– Dirua itzultzeko jardunbidea.

1.– Dirua itzultzeko jardunbidea Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak abiaraziko du, eta dirulaguntzaren ikastetxe onuradunari jakinaraziko zaio, urraketa eragin duten gertakariak jakinaraziz. Halaber, eskatuko zaio hamabost eguneko epean egokitzen jotzen dituen alegazioak egiteko edo



justifikazio-dokumentuak aurkezteko. Dirua itzultzeko jardunbidea abiarazteko ebazpenak egiteke dauden ordainketak eten ahalko ditu kautelaz.

2.– Alegazio-epea igaro ondoren, Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak ebazpena emango du. Hamabi hilabetekoa izango da dirua itzultzeko jardunbidea ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea.

3.– Ebazpenak ez-betetzea dagoela baiesten badu, dirulaguntza –osorik edo zati batean– jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko du, eta, interesdunak dagozkion diru-zenbatekoak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, ebazpena jakinarazten denetik gehienez ere bi hilabeteko epean. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

4.– Borondatezko aldian ez bada ordainketa egiten, hura premiamendu-bidetik berreskuratzeko izapideak abiaraziko dira.

17. artikulua.– Datu pertsonalak.

Eskatzaileen datu pertsonalak «Bekak, laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira.

Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Bildutako datuak beharrezkoak dira Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari emandako ahalorde publikoak erabiltzeko eta legezko betebeharrak betetzeko; halaber, gaian eskumenak dituzten Administrazio Publikoek jakinarazi ahalko zaizkie. Datuen titularrek datuen babesarekin lotutako eskubideak balia ditzakete esteka honetan: [www.euskadi.eus/servicios/10842/](http://www.euskadi.eus/servicios/10842/)

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Hezkuntzako sailburuari; horretarako, hilabeteko epea dute, agindu hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, 2 hilabeteko epean, agindu hau EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 11.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2023ko abuztuaren 21a, astelehena

## I. ERANSKINA

2022-2023 IKASTURTEAN ITUNDUTAKO IKASGELEN KOPURUA MURRIZTEAREN ONDORIOZ LANPOSTUA GALTZEN DUTEN  
IRAKASLEAK BIRKOKATUZ ENPLEGUA MANTENTZEKO LANGUNTZEN ESKABIDEA

KODEA: ..... IKASTETXEA: ..... UDALERRIA: ..... LURRALDE HISTORIKOA: .....

IKASTETXEAREN TITULARRA: ..... IFZ: .....

## BIRKOKATUTAKO LANGILEEN ZERRENDA

NANa	Izen-abizenak	Kontratuaren hasiera-data	Maila	Lanaldiaren ehunekoa ikastetxean	Jatorrizko ikastetxea	Jatorrizko ikastetxearen titularra	Jatorrizko ikastetxearen IFZa	Aitortutako antzintasuna
	1.							
	2.							
	3.							

## AKORDIOAN EZARRITAKO KASUAN LEGEZKO KALTE-ORDAINA ORDAINTEZKO ESKATZEN DUTEN LANGILEEN ZERRENDA:

NANa	Izen-abizenak	Kontratuaren bukaera-data	Hezkuntza maila	Lanaldiaren ehunekoa	Kontratuko bestelako datuak
	1.				
	2.				
	3.				

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)(a)n  
(Tokia) (Data)

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)

2023ko abuztuaren 21a, astelehena

## II. ERANSKINA

ERRELEBO-KONTRATUARI LOTUTAKO ERRETIRO PARTZIALAREN BIDEZ PLANTILLAK GAZTETZEKO LAGUNTZEN ESKABIDEA  
2022-2023 IKASTURTEA

KODEA: ..... IKASTETXEA: ..... UDALERRIA: ..... LURRALDE HISTORIKOA: .....

IKASTETXEAREN TITULARRA: ..... IFZa: .....

2022-2023 IKASTURTEAN AURREIKUSITAKO ERRETIROEN ZERRENDA

NANa	Izen-abizenak	Hezkuntza-maila	Erretiro partzialaren lanaldiaren ehunekoa	Erretiro partzialaren data (Kontratu mugagabearekin lan egindako azken eguna)	Erabateko erretiroaren data	Hileko kotizazio-oinarrria %100
1.						
2.						
3.						
4.						
5.						
6.						
7.						
8.						
9.						
10.						

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)(a)n

(Tokia)

(Data)

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

2023ko abuztuaren 21a, astelehena

## III. ERANSKINA

ERRELEBO-KONTRATUARI LOTUTAKO ERRETIRO PARTZIALAREN BIDEZ PLANTILLAK GAZTETZEKO LAGUNTZAK  
JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA 2022-2023 IKASTURTEA

KODEA: .....IKASTETXEA: .....UDALERRIA: .....LURRALDE HISTORIKOA:.....

IKASTETXEAREN TITULARRA: .....IFZa:.....

NANA	Izen-abizenak	Hasiera- data	Bukaera- data	Lanaldiaren ehunekoa
1.0	Erretiratu partzialaren hasierako kontratua Kontratua aldatzea			
1.1	Errelebo hartzailea Kontratua aldatzea Beste kontratuak			
2.0	Erretiratu partzialaren hasierako kontratua Kontratua aldatzea			
2.1	Errelebo hartzailea Kontratua aldatzea Beste kontratuak			
3.0	Erretiratu partzialaren hasierako kontratua Kontratua aldatzea			
3.1	Errelebo hartzailea Kontratua aldatzea Beste kontratuak			

\* «Ikastetxe pribatuaren kudeaketan» izeneko aplikazioan jaso behar dira kontratu guztiak.

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)(a)n

(Tokia)

(Data)

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

IV. ERANSKINA  
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

KODEA: .....IKASTETXEA: .....UDALERRIA: .....LURRALDE HISTORIKOA: .....

IKASTETXEAREN TITULARRA: .....IFZa: .....

- Erakundeak betetzen dituela hezkuntza-itunei buruzko araudia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuan ezarritako itun-araubidearen berezko betekizunak.
- Erakundeak ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratibo edo penalik, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere.
- Egiazkoak direla eskabidean eta horrekin batera aurkeztutako dokumentuetan adierazitako edukia.
- Betetzen dituela laguntza hauen onuradun izateko indarrean den legedian jasotzen diren baldintzak.
- Egunean dituela dirulaguntzen itzulketaren ziozko betebeharrak.
- Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13 artikuluan ezarritako egoeraren batean.
- Ez dela objektu eta xede bererako inolako administrazio publiko edo erakunde pribatuen dirulaguntzarik jasotzen ari.

Erakundeak laguntza edo dirulaguntzengatik itzultzeko edo zehatzeko prozesuren baten eraginpean al dago?

- 1. Ez dago laguntza edo dirulaguntzengatik itzultzeko ezein prozesuren eraginpean.
  - 2. Laguntza edo dirulaguntzengatik itzultzeko prozesu batean sartuta dago (mota horretako prozesu batean sartuta egoteak dirulaguntza ematea baldintzatzen du, eta hala badagokio, interesdunak dirulaguntza ordaindu beharra ere eragin dezake, baina ez du parte hartzea eragozten).
- Adierazi zein \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_, 2023ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_ (a).

Titularra/Ordezkarria: